



DIRU-LAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA

PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES

Testu bategina / Texto refundido

1.- SARRERA.-

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak honakoa xedatu zuen 8.1. artikuluan, oinarrizko legeriaren izaera izanda:

"1.- Diru-laguntzak ematea proposatzen duten administrazio publikoetako organoek edo bestelako erakundeek, alde zuzenetik, diru-laguntzen plan estrategikoa prestatu beharko dute, eta, bertan, alderdi hauek zehaztu beharko dituzte: haren bidez lortu nahi dituzten helburuak eta izan nahi dituzten ondorioak, behar den epea, aurrez ikusten diren kostuak eta finantzazio-iturriak. Nolanahi ere, aurrekontuaren egonkortasunaren helburuak bete beharko dira."

Agindu hori geroxeago garatu zen, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onetsi zuen Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 10.etik 15.era bitarteko artikuluen bidez. Berez, ez da Estatuko oinarrizko legeria orokorra, baina tokiko administrazioek arau gehigarri modura ezarri behar dute, gure autonomia-erkidegoan, gainera, ez dugulako horri buruzko araudi berezirik.

Aipatutako lehenengo arau-aginduaren arabera, diru-laguntzen plan estrategikoak hauxe dira: *"...erabilera publikoko edo gizarte-intereseko jarduera bat edota helburu publiko bat sustatzeko xedea duten politika publikoen plangintza egiteko tresna."*

Nabaria da Arrigorriagako Udalak, administrazio publiko guztiek bezalaxe, aspalditik eman dituela diru-laguntzak, alegia, lehen aipatutako legeak eta araudiak arautzen duten diru-laguntzei buruzko arau-esparru orokor berrira indarrean sartu aurretik. Izan ere, sustatzeko jarduera, Jordana de Pozas-en trilogia klasikoan xedatutakoari jarraiki, administrazioaren jarduera materiala, erreala edo teknikoa deitzen den zera horren zati handi bat da.

Alabaina, guri dagokigunez, diru-laguntzak emateko jarduera hori, gaur egun, eska daitekeen programaren estaldurarik gabe egiteaz gain (nahitaezkoa den diru-laguntzen plan estrategikorik gabe), indarrean dagoen udaleko arau-esparrua (diru-laguntzak arautzen dituzten ordenantzak) ez dago egokituta lehen aipatu dugun arau-esparru orokor berrira, eta, horren ondorioz, sarritan arazo ugari sortzen dira administrazioaren egungo jardueran.

1.- INTRODUCCIÓN.-

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones (en adelante LGS), en su artículo 8-1, dispuso, con el carácter de legislación básica, lo siguiente:

"1.- Los órganos de las administraciones públicas o cualesquiera entes que propongan el establecimiento de subvenciones, con carácter previo, deberán concretar en un plan estratégico de subvenciones los objetivos y efectos que se pretenden con su aplicación, el plazo necesario para su consecución, los costes previsibles y sus fuentes de financiación, supeditándose en todo caso al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria."

El precepto transcrito fue desarrollado por los artículos 10 a 15 del Reglamento General de Subvenciones (en adelante RGS), aprobado por Real Decreto nº 887/2006, de 21 de julio, y, aunque no constituyen legislación básica del Estado, sí resultan de aplicación supletoria a las administraciones locales, dada la ausencia en nuestro caso de normativa autonómica al respecto.

El primero de los preceptos reglamentarios referidos, ha caracterizado los planes estratégicos de subvenciones como *".....un instrumento de planificación de las políticas públicas que tengan por objeto el fomento de una actividad de utilidad pública o interés social o de promoción de una finalidad pública."*

Es evidente que el Ayuntamiento de Arrigorriaga, como todas las administraciones públicas, viene otorgando subvenciones desde mucho tiempo atrás a la entrada en vigor del nuevo marco normativo general sobre subvenciones instrumentado por la Ley y el Reglamento citados, pues la actividad de fomento, tal y como fuera definida en la trilogía clásica de Jordana de Pozas, constituye una parte considerable de la denominada actividad material, real o técnica de la administración.

Sin embargo, en nuestro caso tal actividad subvencional hoy en día se desarrolla no sólo en ausencia de la cobertura programática exigible (el preceptivo plan estratégico de subvenciones), sino que además, el marco normativo municipal vigente (las diversas ordenanzas reguladoras de subvenciones) no se encuentra adaptado al nuevo marco normativo general antes citado, lo que en ocasiones crea bastantes problemas en la actual práctica administrativa.

Horiek horrela, une honetan, beharrezkoa da diru-laguntzen arloan indarrean dagoen udal-araudia osorik berrikustea, eta, era berean, horren ordeztzea, beste erregimen juridiko bat ezartzea, forma aldetik egokia eta ikuspegi materialetik erabilgarria eta eragilea izango dena, hartara, Arrigorriagako herritarrek sustapen-arloan gaur egun dituzten beharrei erantzun egokia eman ahal izateko.

Forma aldetik, behintzat, diru-laguntzen erregimen berria izango dena prestatzeko, lehenik, plangintza eta programa egiteko nahitaezko tresna paratu behar dugu. Hori dela-eta prestatu dugu Plan Estrategiko hau.

2.- HELBURU ESTRATEGIKOAK.-

2.1. HELBURU OROKORRA.-

Goian adierazi dugunez, helburu orokorra da diru-laguntzak arautzen dituen udaleko arau-esparrua osorik berrikustea, eta beste batekin ordezkatzeko. Esparru berria eta orain dagoena, batez ere, formazko alderdietan desberdindu dira, eta, neurri txikiago batean, alderdi materialetan ere bai. Alderdi formalen eta materialen arteko desberdintasun horren zentzua hobeto ulertuko dugu txosten honen ondoko idatz-zatiak irakurri ahala. Hala ere, kontuak pixka bat argitze aldera, esan dezagun, alderdi materialak aipatzen ditugunean, "zer emango den", "zertarako emango den" eta "nori emango zaion" bezalako galderei erantzuna ematen dieten alderdi horietaz ari garela; formazko alderdiak, ordea, galdera hauei erantzuneko diete: "nola emango da" eta "nola kudeatuko da diru-laguntzaren harreman juridikoa".

2.2. ORAINGO ESPARRUA DESKRIBATZEN DUTEN OSAGAI BATZUK.-

Aurrez dagoena hartu behar da abiaburutzat beti. Labur-zurrean bada ere, diru-laguntzen arloan orain dagoen udaleko arau-esparruaren ezaugarri batzuk aipa ditzakegu. Argi utzi behar dugu, alderdi txarrak eta onak egon arren, txarrak baizik ez ditugula aintzat hartzen:

- a) Arauk guztiz barreiatuta daude. Gaur egun, hamahiru ordenantza daude indarrean diru-laguntzen arloan (ikusitako zerrenda osoa 3.1 idatz-zatian), eta hori ez da batera lagungarria sistema bateratzeko, ez eta ulertu ahal izateko ere.

Así las cosas, se plantea en este momento la necesidad de revisar en su integridad la normativa municipal sobre subvenciones vigente, y establecer en su lugar un nuevo régimen jurídico, formalmente adecuado y materialmente útil y operativo para responder debidamente a las necesidades actuales de la ciudadanía de Arrigorriaga en el orden material de la actividad de fomento.

La construcción de lo que, al menos formalmente, es un nuevo régimen subvencional, debe comenzar, precisamente con la formulación del preceptivo instrumento planificador y programático. A ello intenta responder el presente Plan Estratégico.

2.- OBJETIVOS ESTRATÉGICOS

2.1.- OBJETIVO GENERAL

Tal y como ha quedado expresado, el objetivo general es la revisión íntegra del marco normativo municipal regulador de las subvenciones y su sustitución por uno nuevo. El nuevo marco diferirá del existente fundamentalmente en aspectos formales, y, en mucha menor medida, en aspectos materiales. El sentido de esta diferenciación entre aspectos formales y materiales se entenderá mucho mejor según se vayan desarrollando los próximos apartados del presente informe. No obstante para intentar aclarar un poco la cuestión, baste decir ahora que cuando hablamos de aspectos materiales nos referimos a aquellos que responden a las siguientes preguntas: "qué se da", "para qué se da" y "a quien se le da"; los aspectos formales, responderían a estas otras cuestiones: "cómo se da" y "cómo se gestiona la relación jurídica subvencional".

2.2.- ALGUNOS ELEMENTOS DESCRIPTIVOS DEL MARCO ACTUAL.

Siempre es necesario partir de lo existente. De manera muy esquemática, pueden relacionarse algunas de las características del actual marco normativo municipal en materia de subvenciones. Debe aclararse que se señalan lo que se consideran aspectos negativos, no los positivos, que, evidentemente, también existen:

- a) Enorme dispersión normativa. En la actualidad existen, formalmente vigentes, nada menos que trece ordenanzas distintas en materia de subvenciones (ver relación completa en el apartado 3.1.) lo que, desde luego, no ayuda en absoluto ni a la unidad del sistema ni a la intelección del mismo.

- b) Ez dago koherentziarik arauen artean. Arazorik handiena ez da arauen artean desberdintasunak egotea (hori onargarria izan ahal baita), baizik eta desberdintasun horietako askok ez dutela arrazoi espliziturik edo argirik; hala, bada, oso nabarmena da bateratasunik ez dagoela eta hori sistematikoki agertzen da. Era berean, sarritan kontraesan nabariak daude arauen artean, eta, hortaz, aldaketa zehatzak egin behar izan dira arauetan.
- c) Ez dira egokitzen arau-esparru orokorraren edukira (Diru-laguntzen Lege Orokorrera eta Diru-laguntzen Araudi Orokorrera). Udal-ordenantzak ez dira behar bezala egokitzen Legeak eta Araudiak finkatzen duten edukira. Besteak beste, arazo batzuk aipa ditzakegu: erabiltzen den terminologiaren zati bat nahasgarria da eta zaharkituta dago, eta, batzuetan, ez da erabilgarria. Aski garrantzitsuak diren eduki batzuk ez daude araututa (bereziki deigarria da ez dagoela batere araurik diru-laguntzak zuzenean emateko), eta, horrek arazoak sorrarazten ditu administrazioko jardueran. Arau-esparru orokorrak oso tresna eta aukera interesgarriak ditu hainbat arlotan (izapideak erraztea, egoera zehatzei erantzun zehatzak ematea), baina ez dira erabiltzen, eta, hortaz, aukera horiek alferrik galtzen dira.
- d) Udal-arauak, berez, ez dira aski. Lehen esandakoaz gain, oraingo ordenantzetan jasota dagoen araudia, berez, ez da aski. Kasu deigarrienak alde batera utzita (esate baterako, azken urteetan ezertarako aplikatu ez den ordenantzaren bat), arau guztietan oro har eragina duten gabezia batzuk daude. Horri dagokionez, nabaria da gabezia handiak daudela prozedurari lotutako alderdien araudian (hala diru-laguntzak emateko prozeduran, nola egiaztatzeke eta justifikatzeko prozeduretan). Esku hartzen duten organoak ez daude behar bezala zehaztuta, instrukzioko egintzak ez daude argi azalduta, eta, batzuetan, ebazpena emateko egintzat ere ez daude garbi jasota (esate baterako, egiaztatzeke prozedura).
- e) Diruz lagundu daitezkeen ildoak ez daude era esplizituan azalduta, ezta sistematizatuta ere. Diru-laguntzaren xedearen edukia ordenantza bakoitzean dago zehaztuta, baina definizio horiek, maiz, zehaztugabeak edo desegokiak dira, eta horrek arazoak sortzen ditu diru-laguntzei buruzko harreman juridikoaren dinamikan. Bestalde, gainjartzeak izaten dira (ez nahastu konkurrentziekin), alegia, helburu batzuk ordenantza batean baino gehiagotan errepikatzen dira, baina araudi desberdinekin. Dena dela,
- b) Falta de coherencia entre las distintas normas. El problema no es que haya diferencias de regulación (lo cual puede, en su caso, ser admisible), sino que muchas de esas diferencias no responden, posiblemente, a una razón explícita o clara, y lo que es bastante apreciable es una falta de unidad de carácter sistemático. También en ocasiones existen verdaderas contradicciones entre las diversas normas, lo que ha obligado a modificaciones normativas puntuales.
- c) Inadecuación al marco normativo general (LGS y RGS). Las ordenanzas municipales no se encuentran debidamente adecuadas a la Ley y al Reglamento. Podemos citar, enunciativamente, algunos problemas: Parte de la terminología usada es confusa y obsoleta, y en ocasiones inoperativa. Algunos contenidos de singular importancia ni siquiera están regulados (llama la atención, sobremanera, la ausencia absoluta de regulación de la concesión de subvenciones de forma directa), lo que, obviamente, crea problemas en la práctica administrativa. El marco normativo general contempla mecanismos y posibilidades de mucho interés en diversos órdenes (simplificación de trámites, respuestas concretas a situaciones concretas) que no son utilizados, lo que significa una cierta pérdida de oportunidades.
- d) Insuficiencia de las normas municipales en sí mismas. Además de lo anterior, la regulación contenida en las actuales ordenanzas es, en sí misma insuficiente. Dejando aparte algunos casos más llamativos (como el de alguna ordenanza que en los últimos años no se ha aplicado en absoluto), existen algunas carencias que afectan de modo general a todas las normas. A este respecto debe señalarse, sobre todo la gran insuficiencia en la regulación de los aspectos procedimentales (tanto referidos al procedimiento de concesión, como a los de comprobación y justificación). No se encuentran debidamente precisados los órganos intervinientes, ni definidos con claridad los diversos actos de instrucción, y, a veces, ni siquiera los actos resolutorios (es el caso del procedimiento de comprobación).
- e) Falta de definición explícita y de sistematización de las diversas líneas subvencionables. Aunque el contenido de lo que es objeto de subvención en cada caso, se define en cada una de las ordenanzas, ocurre que tales definiciones, son en ocasiones imprecisas o incluso inadecuadas, dando lugar a diversos problemas en la dinámica de la relación jurídica subvencional. Se producen además solapamientos (a no confundir con concurrencias) en el sentido de que algunos objetos se repiten en una y otra ordenanza con

garrantzikoena da diruz laguntzeko dauden ildo ugariak ez daudela era sistematikoan antolatuta, helburuen eta onura jaso dezaketen pertsonen edo erakundeen definizio zehatzak abiaburutzat hartuta; hori dela-eta, ezin da ondorio praktikorik atera diru-laguntzen kudeaketaren arloan.

2.3. HELBURU ESTRATEGIKO ZEHATZAK.-

Helburu orokorra udalaren arau-esparru berria prestatzea denez, oraingo araudiak dituen alderdirik kritikagarrienak edo txarrenak azaldu ondoren, bidezkoa da pentsatzea lortu behar diren helburu zehatzek lotura izan behar dutela alderdi txar horiek zuzentzeko edo gainditzeko jarduerekin. Bestalde, erabateko korrelazioa dago ia 2.2 idatz-zatian adierazitako alderdiekin, baina orain bestelako hurrenkera bat hartuko dugu aintzat; hasteko, izaera materialeko alderdiak aipatuko ditugu, eta, gero, formalak. Hain zuzen, helburu estrategiko hauek adieraziko ditugu:

- a) Diruz lagundu daitezkeen ildoak era sistematikoan zehaztea eta antolatzea. Horretarako, ondo desberdindu behar ditugu arlo guztiak, hau da, sustapeneko ekintza hedatze aldera, udal-administrazioak era materialean esku hartzeko dituen gaikako arlo handiak. Arlo bakoitzaren barruan, ondo zehaztu beharko dira diruz laguntzeko moduko ildo guztiak, hau da, diruz lagundu nahi diren arlo guztien barruan laguntza zertarako eman nahi den eta hasieran, behintzat, nori zuzenduta dagoen adierazi ondoren zehaztutakoak. Helburua, xedea, eta onura jaso dezaketen pertsonak edo erakundeak zehazten dituen multzo bakoitza diruz lagunduko den ildo bat izango da, edo izan daiteke. Ildoak zehaztu ondoren, era sistematikoan multzokatu edo antolatu ahal dira, erkaketak eginez, batera dituzten osagaiak eta desberdintasunak aurkitzeko. Era horretan, aurrera egin ahal izango dugu, eta erabakiak hartu ahal izango ditugu, diru-laguntzei buruzko harreman juridikoaren kudeaketan dauden arazoak konpontzeko.
- b) Administrazioko prozedurak normalizatzea, arrazionalizatzea eta erraztea. Prozedurako auziek duten garrantzia kontuan izanda, ondo bereizitako helburutzat hartuko dugu. Prozedurei buruz hitz egitean plurala erabiltzen dugu, diru-laguntzei buruzko harreman juridikoaren bi uneei dagozkien prozedurako bi multzo handiak aipatzeko; honako hauek dira: diru-laguntza emateko prozedura, eta egiaztatzeko eta justifikatzeko prozedura. Era berean, plurala erabiltzen dugu multzo bakoitzean prozedura bat baino gehiago egon daitekeelako – eta, berez, halaxe izango da–, balizko kasuen aniztasunaren arabera. Proposatutako eragiketa

regulaciones distintas. Pero, sobre todo, no existe una ordenación sistemática de las diversas líneas de subvención hecha a partir de precisas definiciones de objetos y de posibles beneficiarios, lo que impide realizar deducciones prácticas en el orden de la gestión de las diferentes subvenciones.

2.3.- OBJETIVOS ESTRATÉGICOS CONCRETOS

Siendo el objetivo general la elaboración de un nuevo marco normativo municipal, y una vez han sido descritos lo que se consideran principales aspectos críticos o negativos que caracterizan el régimen actual, resulta lógico deducir que los objetivos concretos a abordar no son otros que los relacionados con aquellas actuaciones que permitan corregir o superar dichos aspectos negativos. La correlación con los aspectos señalados en 2.2. es prácticamente total, aunque el orden que seguiremos ahora no es el mismo; optamos por comenzar por los aspectos de carácter material frente a los formales. En concreto, apuntamos los siguientes objetivos estratégicos:

- a) Definir y ordenar sistemáticamente las diferentes líneas de subvención. Para ello se debe partir de una distinción de diversas Áreas, entendiéndose por tales los distintos grandes ámbitos temáticos de intervención material de la administración municipal en los que se desea desplegar la acción de fomento. Dentro de cada Área deberán ir definiéndose las diferentes líneas de subvención, entendiéndose por tales los ámbitos que resultan de especificar dentro de cada área qué se quiere subvencionar, para qué se quiere subvencionar y a quién se dirige, en principio la subvención. Cada delimitación de un bloque en el que se definan objeto, finalidad y posibles beneficiarios constituirá o podrá constituir una línea de subvención. A partir de la definición de líneas cabe abordar su agrupación u ordenación sistemática por comparación, descubriendo elementos comunes y diversos, lo que permitirá ir avanzando posibles decisiones en orden a resolver los problemas de gestión de la relación jurídica subvencional.
- b) Normalizar, racionalizar y simplificar los procedimientos administrativos. Dada la importancia de las cuestiones procedimentales, lo entendemos como un objetivo perfectamente individualizado. Hablamos en plural, de procedimientos, para referirnos a los dos grandes bloques procedimentales que responden a cada uno de los dos momentos de la relación jurídica subvencional: el procedimiento de concesión y el procedimiento de comprobación y justificación. El plural también obedece a que en cada uno de los dos bloques puede existir – y de hecho existirá– más de un procedimiento, dependiendo de la

hirukoitzari dagokionez, hauxe esan dezakegu: "Normalizazioa" da "iter" edo sekuentzia bera definitzea eta azaltzea funtsean homogeenak diren prozedura-multzo guztietan. "Arrazionalizazioa" da zentzu kontzeptuala eta praktikoa duten izapideen hautaketa zuzen bat egitea. Azkenik, "erraztea" arrazionalizazio-mota zehatz bat besterik ez da, eta beharrezkoa ez dena ezabatzea du xede.

- c) Diru-laguntzei buruzko araudi-esparru orokorrak duen edukira egokitzea (Diru-laguntzen Lege Orokorrak eta Diru-laguntzen Araudi Orokorrak xedatutako horretara). Nabarmena da egokitu beharra dagoela. Alde batetik, ezinbestez arautu behar da gaur egun udal-arauetan erregulaziorik ez duen guztia (kasurik argiena zuzeneko diru-laguntzen araubide juridikoa da). Bestetik, ondo aztertu behar dira alderdi askotan araudi-esparru orokorrak eskaintzen dituen aukerak (era askotara justifikatzeko aukera, muga batzuen barruan azpikontratazioa egiteko aukera, lehentasun-ordena baztertzeko aukera, hainbanaketa egiteko aukera...). Kasu horietan eta beste batzuetan, legeak aukera desberdinak eskaintzen ditu. Kontua da arazoa konpontzeko egokienak izan daitezkeen tresnak eta aukerak hautatzea, eta, era horretan, udaleko araudi erabilgarria eta eragilea prestatzea, hartara, herritarrek dituzten beharrezkoak eta egiten dituzten eskaerak bete ahal izateko.
- d) Arau-xedapenak biltzea arautze bateratua eta koherentea izango duen eta diruz lagunduko diren ildo guztietarako baliagarria izango den testu bakar batean. Gaur egun arauak erabat sakabanatuta daude, eta, beraz, egoera hori zuzentzeko, ordenantza bakar bat prestatzea izan daiteke egokiena. Nolanahi ere, ahaleginak egin behar dira ordenantza horrek ez dezan eduki beharrezkoa ez den ezer, eta alde batera utz ditzan funtsezkoak ez diren edukiz beterik dauden eta oso arautzaileak diren testuak. Horrez gain, arautze bateratua eta koherentea izango da, hau da: ezaugarri edo bereizgarri berdinak dituen beti bat arautzen badugu, beti-bateko arautzea lortuko dugu; eta, hori gorabehera, desberdintzat jotzen dena beste era batera arautu ahal izango da.

Helburu estrategiko honetan jasotakoa salbuespeneko kasua osatzen duen horri dagokionez zehaztu beharko da. Hau da, dagoeneko sortu diren edo etorkizunean sor daitezkeen diru-laguntza lerroei dagokienez; unean uneko udaleko erakunde autonomoen kontura ematen diren diru-laguntzak hain zuzen ere. Kasu horietan, aurrekontu-kudeaketa arazoak direla-eta, berriazko araudi bat osatu ahal izango da kasu bakoitzean, ordenantza autonomo baten

diversidad de supuestos. En cuanto a la triple operación propuesta: Por "normalización" se entiende la definición y explicitación de un mismo "iter" o secuencia para cada grupo de procedimientos sustancialmente homogéneos. Por "racionalización" se entiende una correcta selección de trámites con sentido conceptual y práctico. En fin, "simplificación" no es más que una forma específica de aplicación de la racionalización, que se orienta a eliminar lo innecesario.

- c) Adaptarse al marco normativo general sobre subvenciones (LGS y RGS). Resulta obvio que debe producirse tal adaptación. Por una parte es necesario regular aquello que hoy carece de regulación en las normas municipales (el caso más claro es el del régimen jurídico de las subvenciones directas). Por otro lado, conviene analizar las diversas opciones que en múltiples aspectos ofrece el marco normativo general (posibilidad de diversas modalidades de justificación; posibilidad de subcontratación dentro de ciertos límites; exclusión, en ocasiones del señalamiento de un orden de prelación; posibilidad de prorrateo,.....). En esos y en otros muchos aspectos, la ley ofrece opciones distintas. Se trata de seleccionar los mecanismos y las opciones que mejor respondan en cada caso al problema, haciendo así una normativa municipal útil y operativa para responder a las demandas y necesidades de la ciudadanía.
- d) Concentrar las disposiciones normativas en un texto único que contenga una regulación unitaria y coherente, válida para las distintas líneas de subvención. Para superar la dispersión normativa actual lo mejor puede ser la elaboración de una única ordenanza, procurando, en todo caso, que la misma no contenga más de lo necesario, evitando textos excesivamente reglamentistas plagados de contenidos superfluos o innecesarios. Además de ello, hablamos de regulación unitaria y coherente, lo que quiere significar lo siguiente: regular uniformemente lo que por tener características o rasgos comunes permite una regulación uniforme, ello sin perjuicio de que lo que se entienda diferente se regule de forma diferente.

Lo recogido en este objetivo estratégico debe ser precisado en relación con lo que constituye un supuesto de excepción. Nos referimos a aquellas líneas de subvenciones ya creadas, o que puedan crearse en el futuro, cuyo otorgamiento se haga con cargo exclusivo al presupuesto de los Organismos Autónomos municipales que en cada momento existan. En tales casos, por razones de gestión presupuestaria, se permite que exista en cada caso una regulación específica mediante

bitartez eta Diru-laguntzei buruzko Ordenantza Orokorretik kanpo. Era berean, administrazio-prozedura egokiak Diru-laguntzei buruzko Plan Estrategikoan jasotako desberdinak eta espezifikoa izan daitezke, diruz lagundutako objektuaren espezifikotasunak eta kudeaketaren erraztasunak hala egitea baimentzen duenean eta, jakina, betiere diru-laguntzei buruzko araudi orokorrean xedatutako baldintzak, mugak eta arau inperatiboak errespetatuz.

3.- DIRU-LAGUNTZAKO ILDOAK ERA SISTEMATIKOAN DEFINITZEA ETA ANTOLATZEA.-

3.1.- ORAINGO ORDENANTZAK.-

Lehen esan dugunez, gaur egun, udal-esparruan, diru-laguntzen ildoak ez daude era esplizituan azalduta, eta, beraz, ez daude ondo egituratuta. Era inplizituan edo zeharka, ildoak gutxi gorabehera finkatu ahal izango lirarteke, ondorioak atereaz, indarrean dauden ordenantzen tituluak eta ordenantza bakoitzean helburuak zehazteko egiten diren definizioak abiaburutzat hartuta. Jarraian, gaur egun indarrean dauden ordenantzak zerrendatu ditugu, eta zein urtetan eman diren argitaratu zehaztu dugu.

- 1.- Diru-laguntzak, sariak, bekak eta laguntzak arautzen dituen ordenantza (BAO, 239 zk., 2004-12-14. Aldaketak: BAO, 91 zk., 2006-05-05; eta BAO, 139 zk., 2009-07-23)
- 2.- Hezkuntza-programak egiteko diru-laguntzen ordenantza (BAO, 239 zk., 2004-12-14)
- 3.- Euskara, kultura, herriko jaiak eta kirolak sustatzeko eta zabaltzeko programak eta jarduerak egiteko diru-laguntzen ordenantza (BAO, 239 zk., 2004-12-14)
- 4.- Arrigorriagako udalerrian erroldatuta eta euskarazko ikastaroetan izen emanda dauden ikasleei diru-laguntzak emateko ordenantza (BAO, 239 zk., 2004-12-14. Aldaketak: BAO, 113 zk., 2007-06-08)
- 5.- Garapenerako lankidetzarako laguntzak emateko ordenantza (BAO, 239 zk., 2004-12-14)
- 6.- Arrigorriagako udal-mugarteko bizitegietan igogailuak jartzeko diru-laguntzen ordenantza (BAO, 239 zk., 2004-12-14)

Ordenantza autónoma, al margen de la Ordenanza General de Subvenciones. Igualmente, se permite que los procedimientos administrativos correspondientes puedan ser específicos y distintos de los previstos en el presente Plan de Subvenciones, cuando la especificidad de los objetos de subvención y la facilidad de gestión así lo permitan, y obviamente, respetando siempre las condiciones, límites y normas imperativas impuestas por la normativa general de subvenciones.

3.- DEFINICIÓN Y ORDENACIÓN SISTEMÁTICA DE LAS DIFERENTES LÍNEAS DE SUBVENCIÓN.

3.1.- LAS ACTUALES ORDENANZAS.

Ya se ha dicho que en el momento actual el marco municipal no contiene una explicitación de las diferentes líneas de subvención ni, en consecuencia, una ordenación estructurada de las mismas. Implícita o indirectamente las líneas podrían quedar más o menos establecidas, mediante una deducción hecha a partir de los propios títulos de las ordenanzas vigentes y de las distintas definiciones de objetos que se hace en cada una de las ordenanzas. A continuación se relacionan las ordenanzas hoy vigentes, con la referencia de sus respectivas publicaciones.

- 1.- Ordenanza reguladora de las subvenciones, premios, becas y ayudas (BOB nº 239, de 14/12/2004. Modificaciones en BOB nº 91, de 5/05/2006; y en BOB nº 139, de 23/07/2009)
- 2.- Ordenanza para la concesión de subvenciones a programas educativos (BOB nº 239, de 14/12/2004)
- 3.- Ordenanza para la concesión de subvenciones a programas o actividades de promoción y difusión del euskera, la cultura, las fiestas populares y deportes. (BOB nº 239, de 14/12/2004)
- 4.- Ordenanza para la concesión de subvenciones a alumnos matriculados en cursos de euskera empadronados en el municipio de Arrigorriaga (BOB nº 239, de 14/12/2004. Modificaciones en BOB nº 113, de 08/06/2007)
- 5.- Ordenanza para la concesión de ayudas para la cooperación al desarrollo (BOB nº 239, de 14/12/2004)
- 6.- Ordenanza para la concesión de ayudas económicas para la instalación de ascensores en inmuebles residenciales en el término municipal de Arrigorriaga. (BOB nº 239, de 14/12/2004)

- | | |
|---|--|
| <p>7.- Norbanakoei eta/edo familiei gizarte-izaerako laguntzak emateko udal-ordenantza (BAO, 88 zk., 2005-05-11)</p> <p>8.- Arrigorriagako udal euskaltegian izen emanda dauden ikasleei diru-laguntzak emateko ordenantza, 2008/2009 ikasturteari dagokiona (BAO, 81 zk., 2009-05-04)</p> <p>9.- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko eta zabaltzeko programak eta jarduerak egiteko diru-laguntzen ordenantza (BAO, 32 zk., 2008-02-14. Aldaketak: BAO, 139 zk., 2009-07-23)</p> <p>10.-Euskara kanpoko irudian txerta dezaten Arrigorriagako elkarteei diru-laguntzak emateko ordenantza (BAO, 66 zk., 2008-04-08)</p> <p>11.-Beren jardueretan eta programetan euskara erabil dezaten Arrigorriagako elkarteei diru-laguntzak emateko ordenantza (BAO, 66 zk., 2008-04-08)</p> <p>12.-Arrigorriagako udalerriko saltokien kanpoaldeetan idazkunak jartzeko laguntzen ordenantza (BAO, 66 zk., 2008-04-08)</p> <p>13.-Zerbitzuak eta jarduerak egiteko tasak arautzen dituen Zerga Ordenantza (F) epigrafean, udal-kiroldegiko tasak arautzen ditu, eta harpidedunentzako "diru-laguntzak" ere araututa daude)</p> <p>14.-Alde batera uzten dira Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, horiek udal-kudeaketaren barne egon arren, haien arautzea autonomia-arlokoa baita oso-osorik.</p> | <p>7.-Ordenanza municipal para la concesión de ayudas de carácter social a individuos y/o familias (BOB nº 88, de 11/05/2005)</p> <p>8.-Ordenanza para la concesión de subvenciones a los alumnos y alumnas matriculadas en el Euskaltegi municipal de Arrigorriaga, correspondiente al curso 2008/2009 (BOB nº 81, de 04/05/2009)</p> <p>9.-Ordenanza para la concesión de subvenciones a programas o actividades de promoción y difusión de la igualdad de mujeres y hombres (BOB nº 32, de 14/02/2008. Modificaciones en BOB nº 139, de 23/07/2009)</p> <p>10.-Ordenanza para la concesión de subvenciones a las Asociaciones de Arrigorriaga para insertar en euskera la imagen externa (BOB nº 66, de 08/04/2008)</p> <p>11.-Ordenanza para la concesión de subvenciones a las asociaciones de Arrigorriaga por la utilización del euskera en sus actividades y programas (BOB nº 66, de 08/04/2008)</p> <p>12.-Ordenanza para la concesión de ayudas por la instalación de rótulos exteriores en los comercios del municipio de Arrigorriaga (BOB nº 66, de 08/04/2008)</p> <p>13.-Ordenanza Fiscal reguladora de tasas por prestación de servicios y realización de actividades (Regula en su epígrafe F) las tasas del polideportivo municipal, incluyendo la regulación de las "subvenciones" para abonados.)</p> <p>14.-Quedan aparte las Ayudas de Emergencia Social, que aunque de gestión municipal, la regulación es exclusiva e íntegramente de nivel autonómico.</p> |
|---|--|

3.2.- DIRU-LAGUNTZEN ILDOAK ERA SISTEMATIKOAN ANTOLATZEA.-

Idatz-zati hau prestatzeko, zehatz aztertu dira aurreko 3.1. idatz-zatiko arau-zerrendaren edukiak (batez ere, diruz laguntzeko modukoak diren helburuen definizioak, diru-laguntza bakoitzaren helburuak, eta laguntza jaso ahal duten pertsonak edo erakundeak); eta lan hori egiteko, hainbat udal-arlotako langile teknikoek hartu dute parte, eta harremanetan jarri dira gaur egun administrazioan dagoen jardunarekin. Era horretan, eginda dagoena abiaburutzat hartuta, etorkizunean eduki nahi diren diru-laguntzen ildo bakoitzaren definizio esplizitua finkatu nahi izan da (arrazoi didaktikoak direla-eta, definizio horiek agiri honetako 3.3. idatz-zatian agertzen dira). Horrez gain, ildo horiek ondo egituraturako antolamendu baten barruan sartu ditugu, hartara, diru-laguntzen kudeaketaren esparruan hainbat norabidetatik aurrera egin ahal izateko.

3.2.- ORDENACIÓN SISTEMÁTICA DE LAS LÍNEAS DE SUBVENCIÓN.

Para la elaboración de este apartado los contenidos de la relación de normas del apartado 3.1. precedente han sido analizados (principalmente en cuanto a las definiciones de objetos subvencionables, finalidades de cada subvención y posibles beneficiarios) con la participación de personal técnico de las diferentes Áreas municipales, y han sido puestos en relación con la práctica administrativa actual. Todo ello al objeto de establecer, partiendo de lo existente, unas definiciones explícitas de cada una de las líneas de subvención que en el futuro se pretenden mantener (definiciones que por razones didácticas, se presentan en el apartado 3.3. del presente documento), y sometiéndolas a un orden estructurado, que permita ir avanzando posibles decisiones en orden a la gestión de subvenciones.

“Dagoeneko eginda dagoena” oinarritzat hartzeak duen garrantzia nabarmendu nahi dugu. Aurreko lerroetan aurreratu dugunez, Plan Estrategiko honetan proposatzen den diru-laguntzen erregimenak dakarren berrikuntza nagusia, batez ere, formari dagokio (diru-laguntzak nola emango eta kudeatuko diren); izan ere, oso neurri txiki batean izango du eragina arlo materialean (hau da, zein diru-laguntza eman, zertarako eman, eta nori dauden zuzenduta). Azken alderdi horiei dagokienez, argi eta garbi esan dezakegu jarraipena ematen diola aurretik zegoenari, eta hori aski zentzuzkoa da, ez baikara hutsetik abiatuko. Diru-laguntzak emateko administrazioaren jarduna tradiziokoa, ohikoa, aldian behingoa eta etengabea da denboran. Horrek esan nahi du etengabe ari direla horri buruzko erabakiak hartzen.

Gutxi gorabehera diruz laguntzeko moduko ildo berberei eutsiko zaie, eta, era berean, helburu berberetara edo antzeko helburuetara eta antzeko hartzailengana zuzenduko dira laguntzak; baina, hala ere, eginda dagoena antolatatu, eta ondo sistematizatu beharra dago. Horixe da, izan ere, egin nahi dena. Alde batetik, kanpoko aurkezpena hobetzeko, eta, bestetik, sistematizazioa eginez gero kontzeptuak argiago egongo direlako, eta, hortaz, diru-laguntzen harreman juridikoak hobetu kudeatu ahal izango direlako.

Ariketa horren emaitza da, hain zuzen, jarraian agertzen den koadroa, diruz laguntzeko moduko ildoan antolamendu sistematikoa baita:

Subrayamos lo de “partir de lo existente”. Tal y como ya se ha ido adelantando en líneas anteriores, la novedad del régimen de subvenciones que se propone en el presente Plan Estratégico, alcanzará sobre todo al orden formal (cómo se dan y cómo se gestionan las subvenciones) y sólo en pequeña medida al orden material (Qué subvenciones se dan, para qué se dan y a quienes se dirigen). En estas últimas cuestiones puede hablarse claramente de continuidad, lo cual resulta lógico por cuanto que no se parte de cero. La práctica administrativa de otorgamiento de subvenciones es tradicional, habitual, periódica y continuada en el tiempo. Lo que significa que continuamente se están tomando decisiones al respecto.

El que, más o menos, se mantengan las mismas líneas subvencionables, dirigiéndose a las mismas o parecidas finalidades y a los mismos posibles preceptores no significa que no se deba poner orden y sistematización en lo existente. Es eso, precisamente lo que se intenta. No sólo por una razón de mejora de una presentación externa, sino porque la claridad conceptual que se derive de la sistematización posibilita una mejor gestión de las relaciones jurídicas subvencionables en toda su integridad.

El resultado de ese ejercicio es la ordenación sistemática de líneas subvencionables que se condensa en el cuadro que a continuación se presenta:

ONURA JASOKO DUTEN ARLOAK, ILDOAK ETA PERTSONAK EDO ERAKUNDEAK. ÁREAS Y LINEAS Y BENEFICIARIOS		EMATEKO PROZEDURA PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN
1.-	KULTURA / CULTURA	
1.1.	Kulturako, aisiako eta astialdiko jarduerak, programak eta proiektuak, taldeei, elkartei eta pertsona fisikoei zuzendutakoak (gazteak eta hirugarren adinekoak barne hartuta) Actividades, programas y proyectos culturales, ocio, tiempo libre (incluye juventud y tercera edad). Beneficiarios grupos y asociaciones, pero también personas físicas.	Oro har, norgehiagoka. Salbuespen gisa, zuzenean. Concurrencia competitiva como regla general. Directas como excepción
1.2.	Taldeek eta elkarteek egindako jaiak (urteko jaiak, eta herriko eta auzoko jaiak antolatzea) Fiestas (Organización de fiestas anuales, patronales y barrios). Beneficiarios grupos y asociaciones.	Zuzenak eta izendunak bakarrik. Únicamente directas nominativas.
2.-	KIROLAK / DEPORTES	
2.1.	Taldeek eta elkarteek kirola sustatzeko eta egiteko antolatutako jarduerak, programak eta proiektuak Actividades, programas y proyectos de promoción y práctica del deporte realizadas por grupos y asociaciones	Oro har, norgehiagoka. Salbuespen gisa, zuzenean. Concurrencia competitiva como regla general. Directas como excepción

	2.2.	Kiroldegia erabiltzen duten pertsona fisikoentzako bekak Becas a usuarios del polideportivo (personas físicas)	Lehiaketarik gabeko prozedura Concurrencia simple
3.-		HEZKUNTZA / EDUCACIÓN	
	3.1.	Ikastetxeek eta gurasoen elkarteek antolatutako eskolaz kanpoko jarduerak eta hezkuntzako jarduera osagarriak Actividades extraescolares y educativas complementarias realizadas por los centros educativos y AMPAS	Zuzenak eta izendunak bakarrik. Únicamente directas nominativas
4.-		EUSKARA / EUSKARA	
	4.1.	Taldeek eta elkarteek euskara zuzenean sustatzeko antolatutako jarduerak, programak eta proiektuak Actividades, programas y proyectos de promoción directa del Euskara por parte de grupos y asociaciones	Oro har, norgehiagoka. Salbuespen gisa, zuzenean. Concurrencia competitiva como regla general. Directas como excepción
	4.2.	Euskara sustatzeko eta hizkuntza-normalizazioa lortzeko xede bakarra duten erakundeei eusteko laguntzak Ayudas al mantenimiento de entidades que tengan como fin exclusivo la promoción del euskara y la normalización lingüística	Zuzenak eta izendunak bakarrik. Únicamente directas nominativas
	4.3.	Euskara ikasteko banakako bekak (uda-euskaltegian edo beste leku batzuetan ikasteko) Becas individuales al estudio del euskara (en Euskaltegi municipal y en otros lugares)	Lehiaketarik gabeko prozedura Concurrencia simple
	4.4.	Elkarteen eta saltokietan hizkuntza-paisaia normalizatzeko taldeei, elkartei eta merkatariei zuzendutako laguntzak Normalización del paisaje lingüístico de asociaciones y comercios (beneficiarios: grupos y asociaciones, y comerciantes)	Lehiaketarik gabeko prozedura Concurrencia simple
	4.5.	Ikastolen jaiak Fiestas de las Ikastolas	Zuzenak eta izendunak bakarrik. Únicamente directas nominativas
	4.6.	Arrigorriagan erroldatuta dauden herritarrek Arrigorriagako Udal Euskaltegia zerbitzu publikoa erabil dezaten sustatzera bideratutako laguntzak. Ayudas destinadas a la promoción de la utilización del servicio público Arrigorriagako Udal Euskaltegia por parte de los y las ciudadanas empadronadas en Arrigorriaga.	Erregimen berezia. Arautze autonomoa. Régimen específico. Regulación autónoma.
5.-		BERDINTASUNA / IGUALDAD	
	5.1.	Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko jarduerak, programak eta proiektuak, taldeei eta elkartei zuzendutakoak Actividades, programas y proyectos de promoción de la igualdad de mujeres y hombres. Beneficiarios: grupos y asociaciones	Oro har, norgehiagoka. Salbuespen gisa, zuzenean. Concurrencia competitiva como regla general. Directas como excepción
6.-		GIZARTE EKINTZA / ACCION SOCIAL	
	6.1.	Gizarte Larrialdietarako Laguntzak, pertsona fisikoei zuzendutakoak Ayudas de Emergencia Social (AES). Beneficiarios personas físicas.	Erregimen berezia. Araudi autonomikoa. Régimen específico. Normativa autonómica
	6.2.	Gizarte Larrialdietarako Laguntzen laguntza osagarriak, pertsona fisikoei zuzendutakoak Ayudas complementarias a las AES. Beneficiarios personas físicas.	Lehiaketarik gabeko prozedura, iraunkorra izanda. Concurrencia simple con convocatoria permanente

